ORLY PASTA

written by Errezetak



Askotan pentsatua nuen jatetxe edo tabernetan ateratzen zituzten frijituak etxean egitea ezinezkoa zela. Eramaten duten kanpoko kobertura harroa, kolore horia… nola demontre egiten da?

Osagaiak:

- 4 Irinez mukuru betetako koilara
- 7gr Legamia
- 1/4 Koilaratxo koloratzaile
- 1 Koilaratxo gatz
- Sifoia edo garagardoa.

Prestaketa:

1.Tuper batean irina, gatza, legamia eta koloratzailea gehitu. Irabiatu. Ondoren sifoia edo garagardoa gehitu, irabiatuz bechamel baten testura hartu arte. Gorde.